

MADRID-EN EUSKAL JAI



*¡Zer jai alai,
Jai-Alai-ko jaia!*

Euskal-errico erri guztietan ezagutzen da *Chanboliñ* deitzen zaion gizon bat. jaio zanian jarri zioten izen bat, baña gero, danboliñarekin erriko plazan aitaren chistua laguntzen azi zan ezkeroztik, utzi zun «Jose Mari» edo «Anton» izatez, *Chanboliñ* izateko. Eta izen onekin deitzen diote erriko biztanle guztiak, eta erritik kanpora joaten dan Euskaldunak, jaiozan chokoa oroitzean, oroitzendu beti *Chanboliñ*, ainbeste dantza ariñ egin azi zion *Chanboliñ*.

Orregatik, *Chanboliñ* bat azaltzendan zekida ura Madrid-ko toki guztietan ikustean, sentitu det atsegintasun gozo bat. Zekida onek asmegokitzendu Euskal-jai bat, zeña egingodan Jai-Alai deitzen dioten piilota toki estalian, Madrid-ko Euskal-naparraren alkartasuneko erabakitaz eta «Club sport vasco» izendatzen dan bilgumaren laguntasunarekin.

Joan naiz bada Jai-Alaira eta gelacho, bollesta, jarleku eta sarbide guztiak Euskaldunez guztiz beteta ikustean, alaitasun aundi bat gainkiratu da nere biotzean, urteko beste egun guztietan ainbeste anai batu gabe bizi gerala arrotz urian pentsatzeak ematen ziran penari ¡Zer edertasuna askotan bilduko bagiña egun ontan bezela, denak bata bestien onduan euskeraz mintzatzeko; ¡Zer zariontasuna geiagotan batuko bagiña anaiak gerala artu gabe, gaur bezela gertutik eta urriñetik, andik eta emendik diosal gozotsuak alkar trukatzeko!

Gauza abek guztiak nere artian esaten ari nitzan, danboliñ eta chistuaren doñuba asi zanian. Zan Zumarra-ko danboliñ talde ospatsua zeñak jotzen zun, obeto eziñik, «Iru damacho.. Jendiak, Euskal basoko soñuaren otsa aditzean, batu zitun eskuak olagara izugarritzko batekin bere atsegintasuna azaltzera einateko.

Berialase asi zan pillota partidu bat lau jokalarien artean. Neurritu zituzten indarrak Solano (Ramón eta Jose Maria) urdiñak, Solano (Karlos) eta Llaguno (Luis) gorriaren kontra. Laurak jokatzuten zekiten guztia eta ez zan guchi. Jokuko larogei eta amar tantoetatik, geienak izan ziran ondo jokatuak eta lau jokalariai gordotzitu ziran ederki bakuitza bere tokian. Azkenik irabazi zuten gerriko gorria zera-matenak.

Eta atera zan Euskal-naparren bilgumako kantari-taldea. Orañ baño lenago ditu onek irabaziak chalo ugari, baña uste degu ez diotela beñere jai onetan bezelako olagara ederrik donkitu. Bere maisu Buskaren zuzenkidaren azpian kantatudituzte «*Goizeko izarra*» «*Nere maiteari*» eta «*Ume eder bat*» ¿Nola kantatu zituzten? Euskal erritik kanpora beti Euskal-errira begira dagonak kantatzen dun bezela; baso eta zelaiak biotz biotzetik maite arren, ikusi ezin dituanak kantatzen dun bezela; beti ametsetan baserri churi eta iturri garbiak ikusten dituanak kantatzen dun bezela.. ¡Ah, Euskal-erritik atera ez zeraten Euskaldunak! Ez dakizutezenbat balio duten zuen kantan; ez dakizute zuek nola sentitzen dan askotan barren barrenian zortziko bat kantatzeko bearra; ez dakizute zein errez nai gabe bi malko jeistendiran begietatik, echetik kanpoan aditzean chikitan gure amari ainbeste aldiz aditutako kanta ez-titsuak! Euskaldunak!.... nai badezute zuen erria maitatzen ikasi, urrutitu zaitezte zuen erritik.

Zortziko oien atzetik kantatu zuten, ¿nola ez?, *Gernikako arbola*, eta ¿zenbat euskalduntasun esnatu zan biotzetan! Jendia, kantari taldeak gure azkatasunaren eresorkia bukatzian, jarri zan zutik otsarez beteta eta chalo aundiarekin eta brabo askorekin saritu zun arren lan fiña eta nola askotan berriro ziran olagara aiek, bigarren aldiz kantatu izan bear zituzten beñere aztuko ezditugun doñu aye.

Eta zekidan irugarren zatia aurrera eramateko atera ziran Zumarra-ko danboliñteruak aureskuko soka luze batek jarraitzenziotela. Aurreskuko zuzendariak ziran Plasenziko Aucha, aureskua, eta Pujana Billafranka-koa, atzeskua; biyen tartian zijuatzen ogei gazte, sasoi ederreko ogei mutill. Chapel gorriakin buruak estalita pilota tokira atera

ziranian; bein eta berriz ertz batetik bestera euskaldunen ibilkera arroti arrekin igarotuziranean: dantza sokaren doñu paregabekoakin anka ayek mogitzen asi ziranean, Euskalduntasunezko aize gozo bat zabaldu zan toki artan eta denak ergai batian erritik kanpora gendela aztuta us-tetu gendun gure basoetan zuatz tartian gebiltzela eta aufak eta irrin-tziak sortu ziran baztar guztietatik ¡Zer doaiak sentitzen giñan! Mundu guztia begiak aureskularietatik kendu gabe zeganian, atera zan, bere amaren besoetatik iges eginda, plazan erdira Luisacho Umaran, lau ur-teko aur chit pollita eta besochuak alchatuta asi zan bakar bakarrik ariñ dantzan. Ura ikustean atera ziran beste ume batzuek eta aundiak, soka puskatu izan bear zuten, chikiari bertan sarrera emateko. Ala, zar eta gazte, gizon eta ume, denak egin zuten auresku bikañ bat. Eta gero, damachoak atera zituztenian eta ariñ-ariñaren doñua ari zanian, kriski-tiñen otsa besterik ez zan aditzen.....

Euskal-Naparren bilgumako jaunari eskerrak, igarotu degu ederki egun bat. Emandik doatsutzenditut denak Burgoa jauna, bilgumaren Dianagusia doatsutzean. Eta ez ditut illara abek bukatu nai Shanti, Madrid-en bizi dan erriko-sume alaienari olagara bat bialdugabe: ondo merezia dauka gauzabek guztietan egiten dun lanengatik.

Eta Buska, maisu langillea ¿zertarako izeidatu? badaki berak ondo kantari taldeko jendiak zenbait maite dun eta uañerako lagunak nora-ño goitutzen duten: ez merezi gabe, bere izena.

Jai-Alaiko festa ez degu errez aztuko; oroituko degu denbora as-koan zergatik sendatu digu piska bat erritik kanpora egotiak ekartzen digun animazo min gogor au.

¿Ez dituk orrelako egun asko arrapatzen urtian, e Tomas? *bai izan zala jai alaia Jai-Alaiko jaia...!*

AITZGOGOR.

Madrid-en 1906-ko Mayatzaren 22-an.

